



Olentzero eta Errege Magoek bota zuten Tolosako txupinazoa, handik zebiltzala aprobetxatuz. MADIDI SORCIA / ARGAZKI PRESS

Gabon kutsuko txupinazoa

Olentzero eta Errege Magoek bota dute Tolosako inauterietako txupinazoa

ESTITXU ZABALA
Tolosa

Hamabietarako 20 minutu falta ziren, baina jada jendea biltzen hasi zen Tolosako (Gipuzkoa) Plaza Zaharrean. Ordu horretan iritsi ziren Kabi-Alai elkartekoak, inauterietan herriko arduradunak izaten baitira. Hala, dantzarien arkuen azpitik pasatu, eta udaletxeko balkoira igo ziren agintariak euren jantzi dotoreekin. Plazaren erdialdean, haur eta gaztetxoak ziren gehienak, helduak gutxiago ziren, eta plazaren bueltan-bueltan jarri ziren. 11:50etarako jendez lepo zegoen plaza, moztarrok gutxi, txilabak gehiago, baina, dudarik gabe,



Plaza Zaharra jendez lepo zegoen, eta inguruko balkoietan ere jendea jaiaz gozatzen ari zen. MADIDI SORCIA / ARGAZKI PRESS



Haur eta gaztetxoak ziren plazaren erdian bildutako gehienak, baina helduak ere bazeuden

buzo edo lan-jantziak ziren nagusi tolosarren soinetan. Kolore guztietako buzoak ikus zitezkeen: gorriak, laranja, horiak, berdeak, arrosak, zuriak... Inguruko etxe eta eraikinetako balkoietan ere jendea giroaz gozatzen ari zen, eta haien aurrean kolore bizietako oihalak zeuzkaten zintzilik, baita puxikak ere.

11:55ean bozgorailuetako musika itzali zuten, eta denak udaletxeko balkoira begira jarri ziren. Han azaldu ziren Olentzero eta Errege Magoak. Duela gutxi amaitu zuten euren Gabonetako lana, eta, dirudenez, inauteriak hastekoak zirela jakin zuten, eta Tolosan gertatzea erabaki zuten. Kabi-Alaiko ki-deek pregoia irakurri edo gabon kanta bat abestu zalantzan zeudela onartu zuten, baina azkenean, urtero legez, pregoia irakurri zuten. Hala, zenbait albisteren berri eman zuten pregoilariak. Tolosan 5.000 abiadura motelgailu jarriko dituztela zin egin zuten elkartekoei, eta, gainera, bakoitza metro batetako izango dela esan zuten. Aste-bururo moto-kros eta *free stile* lasterketak antolatuko dituztela ere agindu zuten. Bestetik, neurri berri baten berri ere eman zuten. Badirudi, kaleko pixatokiak direla eta kexa asko egon direla bizilagunen artean, beraz, arazoari aurre egiteko, tolosar bakoitzari pixontzi bana banatzea erabaki dute Kabi-Alaikoek. Hori bai, parrandaren amaieran hutsa nahiz bete egon, bakoitzak bere etxera itzuli beharko omen du.

MUSIKA ETA KOLOREA. Eguerdia izateko minutu pare bat falta ziren, «oraintxe jarri behar zitzaizkien plazako altuena aurrean», kexatu zen Ana Mari Arruabarrena. «Tolosarrok: gora Ostegun Gizena! Gora inauteriak! Gora Tolosa! Gora Euskal Herria!», oihukatu zuen pregoilarietako batek. Segidan, txupinazoa bota zuten Olentzerok eta Errege Magoek, eta segituan nabaritu zen inauteriak hasi zirela. Xanpain botiletatik edaria indarrez irten zen alde batera eta bestera, eta batzuk bustitzeko beldur ziren, «hona botatzen badute, aterkia atera beharko dut», zioen Estitxu Neirak. Sugepaperak eta girnaldak etengabe erortzen ziren balkoietatik, «ikaragarri gustatzen zait sugepaperaz betetzea; bota, bota!», zioen alai emakume batek. Txarangaren musikarekin saltoka eta dantzaka hasi ziren bertan bildutakoak, eta pixkanaka Alde Zaharreko kaleetan sartu ziren. Batzuk dantzan ibili ziren, eta beste batzuk tabernaz taberna, txistorra pintxoak doan izaten baitira Ostegun Gizenean. Plazako lurra koloretako papertxoak beteageratu zen.



Kabi Alai elkarteko txarangak girotu zuen inauterien hasiera, udaletxeko balkoian ere bildu ziren arduradunak. MADIDI SORCIA / ARGAZKI PRESS

